

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko azaroak 12

212. zenb.

Posta ez da
baserrietara
iristen

Ekonomia
Roneoko
konponbidea

Haurdunaldia
Ilusioz betea



ANTZERKIA ENTRETEJAS



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ARRASATEKO UDALA

AMAIA ANTZOKIA

**Azaroak 13 - larunbata
Gaueko 10,30etan
Sarrera 500 PTA
(Gazte Txartelarekin 300)**

markeliñe

Astelehenetan itxita

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa
79 42 22


VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeiño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Joseba ezaguna:

Lehenengo batean drogaren inguruan bota zenituen iritziekin bat ez natorrela adieraztera natorkizu. Produktu sintetikoak erabiltzen dituztenen eromena aipatzen zenuen, sustantzia kimikorik erabiltzekotan, naturalak behar dutela esanez. Zeuk darabiltzazunak esan nahi zenuen, noizean noizean sudarrari astindutxoia eginez. Mundu oso bat deskubritu duzu, Joseba. Minus 3.000 urte "acullico" a ahoan zeramaten pertsonaiek bizi zutena, ustez. Baina zuri ez dizu indar eta kemenik ematen. Gosea berdin jasan behar izaten duzu. Ez zara hotz, gose edo egarririk sekula ez daukateen horietarikoa. Ez zara ez, noblezia hartako partaide.

KHUKA goxoa. Landareen Landarea.

Ziur aski, ez duzu jakingo Erythroxylyon Coca zer edo nor den. Ez duzu jakingo berrehun urte direla famelian. Entzungo zenuen nonbait sulfatoa lortzeko karbonato potasikoa eta kerosenoa erasten zaizkiola. Bost axola, akaso. Zer nolako izenak, ezta?

Zuri, Joseba ezaguna, esplikatu ez dizutena, begibistan dago, zuk eta zure adixkideek kontsumitzen dituzuen produktu naturalak zaborrieriaz fabrikatuak direla. Lehenago aipatu dizudan sulfatoa, kokaina klorhidratoan bilakatzeko, KOKAINA, Joseba, azetona, eter, etanol eta azido kloridriko direla beharrezko. Zuk badakikezu produktu guzti horiek ez direla Kolonbiako nekazari gizaixoak bere lurretan ereindakoak.

Zu zeu baina, pozik baino poziago bizi zara heroinaren ezpatapean bularra jarri behar izan ez duzulako. Gutun hau irakurri bezain laster otuko zaizu nahi duzunean utzi ahalko duzula libertitzeko baka- rrik erabiltzen duzuna, finean poztasuna ematen dizun hainbat gauza duzulako besteona ere baden munduan. Biok dakigu ordea, Joseba ezaguna, goizeko zortzietan beharko duzula, gaur ere lana egingo bada.

Yuppi Jaun Txit Gorena, ze Heavy-a zaren aluzinantzen duzunean! Egin ezazu jaramon, edo bestela utzi mesedez pakean Fabian ene laguna, hain baita sinplea ezen Greziako midikuek bezalaxe uste baitu egun, semena burmuinetan sortzen dela.

Besterik gabe, ene agurra.
Gorantziak emazteari.

JON IÑAKI LASA



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketaria:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASÁ taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingegiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larraga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alcnso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Vallés.




Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38



ZENBAKI
Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

**ARTOLA
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

••••

Aski dela esateko garaia da

Gure duintasunarekiko mesprezuen eta tortura kasu ikaragarrien aurrean lotsagabeki geldi dago gizarte apatiko hau. Hainbeste utzikeriaren ironian izerdi hotza somatzen dugu. Adi egon!... Berandu baino lehen erreakziona dezagun.

Geuk emakumeok ezin dugu oharkabean pasa atxilotutako emakumeari jasanarazten dioten zigor bikoitza: herri honen askatasunen alde borroka politikoa eta ideia batzuk mantentzeagatik, eta batez ere hori emakume izanik egitera ausartzeagatik.

Zaila da atxilotu, kolpatu, torturatu eta iraindu duten pertsona baten zailtasunak irudikatzea... bizi izan duen infernu hori kontatzeko. Ezinezkoa dirudi — hala izango da beharbada — hitz ulergarrietan adieraztea min, umiliazio, hotz, zikinkeria guzti hori, nahi arren ezin ahantz daitekeen sentsazio multzo hori.

Hala ere, polizien eskuetan erori diren emakumeen testigantzak argigarriak dira, elkartasunaren giza balioak ukitutako edozeini larrigurrea eragiten diote.

Encarni Blanco: "Nik ez dut putarik bortxatzen baina ipurtzulotik sartu diezaioket makila bat, bai". Lagundu Sanchez: "Bilutsik beren aurrean dantzan egitera be-

hartzu ninduten eta nahi beste barre egin zidaten". Itziar Amezaga: "Nire alabaren gaineko patria-potestatea, galdekatzan ninduen funtzionarioari ematen niola zioen dokumentu bat sinarazi zidaten", "eskoba kirtena sartuz bortxatu ninduten". Ana Isabel Morante: "Masturbatzera behartu ninduten, eta eurak masturbatzera ere bai", "pistola sartu zidaten maginatik", "esku eta barrabilekin ukitzen ninduten". Gurutze Iantzi: torturak erahila.

Guardia Zibilaren egoitzan jasandako terrore egoera eta torturaren ondorioz hil zen Gurutze. Corcuerauren aurpegiak, bere heriotza naturala izan zela esanez tinko, izutu egiten gaitu, adierazpen horietan dagoen degenerazio ezku-tuagatik. Eta komunikabide gehienen ohizko makurkeria eta isiltasuna egiarekiko iraina dira.

Hemen torturatu egiten da. Setio edo salbuespen egoera etengabe bizi gara Euskadiko gizon eta emakumeak aspaldidanik. Guretzat ez dira salbuespeneko legeak


desagertu, ezta jurisdikzio berezia ere. Askatasun indibidual eta kolektiboaren zapaltzaile den Estatu polizia honen aurpegi ezkutua da tortura, eta gure herriaren etikarentzat eskandalu jasan ezina dira Gobernu Bas-kongadoaren konplizitate eta onarpena.

Ezin dugu tortura kasu gehiago onartu. Lege eta auzitegien aldaketa esijitzeko garaia da euskal gizartearentzat, ez dezaten beste inor torturatu. Adorea duen herria izan gaitezen. Aski dela esateko garaia da!

EGIZAN

Zuzenketa

Joan den astean Karmele Iparragirrek emandako gomendioan hankasartzea egin genuen. "Zaila da egindakoaz damutzea, eta eginba-koaz beti damutu izan naiz ni behintzat". Horixe zen Karmelek esan nahi ziguna, eta ez alde-rantziz, guk jarri genuen bezala. Barka gaizki esanak.



EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Zer iruditzen zaizu dinosauromania?



**Alexander Arkarazo
Ikaslea (22 urte)**

Amerikanada bat, beste hainbat bezelakoa. Ez naiz pelikula ikustera joan, eta ez daukat asmorik ere.



**Fran Osina
Langilea (28 urte)**

Gehiegizkoa da. Moda bihurtu da. Edonon daude dinosauroak. Agian pelikula ikustera joango naiz, batez ere efektu bereziak ikustearren.



**Jose Oscar Gomez
Ikaslea (17 urte)**

Gustatuko litzaidake orain ere dinosauroak egongo balira. Orokorrean, mobida ere gustoko dut eta filmea ikusteko asmoa ere badut.



**Feli Pérez
Etxekoandrea (57 urte)**

Ez dakit zer den hori. Dinosauroak agertzen diren pelikularik dagoenik ere ez dakit.



**Izaskun Unamuno
Ikaslea (19 urte)**

Dinosauroak leku guztietan ikus daitezke azkenaldian, baina filmea ikustera joateko asmoa badut.




**Antonio Olmedo
Jubilatua (65 urte)**

Ez dakit zer den eta ez naiz dinosauroen gai horretaz enteratu.



**Elena Hernández
Langabetua (18 urte)**

Gehiegizkoa iruditzen zait, produktu guztiek dinosauroak ekartzen dituzte. Pelikula polita izango dela uste dut eta ikustera joateko asmoa dut.



**Nieves Zubia
Langilea (34 urte)**

Animalia horiek higuin-garriak iruditzen zaizkit, eta ez zaizkit batere gustatzen.




EKINTZA EGITARAU 93-94 IKASTURTERAKO

- Garapen Pertsonaleko kurtsoak
- Osasun arloa: Elikadura, masaia eta erlajazioa
- Tailerrak: Tapizgintza, Makramea, Pintura, Eskulangintza, Gitarra
- Ikastaroak eta abar

INFORMA ZAITEZ:

- famili eta gizarte heziketarako zentruak
- gipuzkoa donostia kuxaren gizarte ekintza
- santa teresa, 12 Tfnoa: 79 04 59 ARRASATE



BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritoxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguaietoria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazki 45 87 44

Udalzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberdrola) 12 01 62
 Gasas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 12
 Egunez: Ruiz, Magdalena
 Gauez: Guñer, San Antonio.
Larunbata 13
 Egunez: A.M. Morales, San Andres.
 Gauez: Estella, Matxiategi.
Igandea 14
 Egunez: Azcoaga, Ferrerías.
 Gauez: Estella, Matxiategi.
Astelehena 15
 Egunez: S. Español, Iturriotz.
 Gauez: Mozos, Pedro Deunaren.
Astearte 16
 Egunez: Camacho, Oxirondo.
 Gauez: Corcuera, Musakola.
Asteazkena 17
 Egunez: Puy, Barrenkale.
 Gauez: Irizar, Erguin.
Osteguna 18
 Egunez: Guallar, San Antonio.
 Gauez: Amezua, Santa Marina.

12 OSTIRALA

ZINEA
 "Parque Jurásico". 7etan eta 10etan.

UFOLOGIARI BURUZKO HITZALDIA

Izenburua: "Humanidad. ¿Dónde vas?". Monterrongo hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan. Hizlariak: J.M. Aurrekoetxea eta J. Ferreras.

KONTZERTUA
 Bermeoko bi talde: "Munsterland" eta "Birth Cake". Gaztetxean, gaueko 10etan.

MUSIKA
 "Santiago Reyes eta David De-fries Quartet" jazz taldeen emanaldia. Elorrioko kafe Ateneon, gaueko 11etan.



"ARRASATE EUSKALDUNA LEMAPEAN BAZKARI ERRALDOIA EGINGO DA KIROLDEGIAN"

AEDren 10. urteurrena ospatzea izango da bazkariaren helburua. Arrasateko euskaltzale guztiak, kiroldegira hurbilduko dira eguerdiko ordu 2etan. Bazkalostean txalapartari, bertsolari eta gaiteroak izango dira. Txinparta taldearen dantzaldia ere izango da.

13 LARUNBATA

ZINEA
 "Parque Jurásico". 5etan, 7,30etan eta 10etan.

TXONTXONGILO EMANALDIA
 Enkarni Genuak eskeinia. Izenburua: "Ipurtargia". Aretxabaletako Zاراia zineman, arratsaldeko 4etan.

ARTISAU FERIA
 Gatzan. Herriko frontoian.

"ARRASATE EUSKALDUNA" HERRI BAZKARIA
 AEDk antolatuta. Eguerdiko ordu 2etan, kiroldegian.

III. UDAZKENEKO JAIALDIA
 Eskoriatzako pilotalekuan.

ANTZERKIA
 "Entretejas". Markeliñe taldearekin. Sarrera 500 PTA, gazte txartelarekin 300 PTA. Amaia antzokian, gaueko 10,30etan.

ATZERATUEN ALDEKO JAIALDIA
 Aretxabaletako Zاراia zineman. Gaueko 10etan.

KONTZERTUA
 "Soziedad Alkoholika" gasteiztarrek eta Lizarrako "Flitter" taldea. Gaztetxean gaueko 10etan. Sarrera 400 PTA.

MILAN DEUNAREN FERIXIA

Gatzagako artisau taldeak antolatuta. Artisautzatik bizi direnek parte hartuko dute. Era guztietako gauzak postuetan: **keramika, saskiak, larruz edo egurrez egindakoak. Larunbatean, goizeko 11etatik ordu 2etara egongo da zabalik eta arratsaldean, 4etatik 7etara. Igandean, berriz, goizez bakarrik, 11etatik ordu 2 t'erdietara.**

14 IGANDEA

ZINEA
 "Parque Jurásico". 5etan, 7,30etan eta 10etan.

ARTISAU FERIA
 Gatzagan. Herriko frontoian.

MENDI IRTEERA
 Murruxiko mendi taldeak antolatuta, Azpeitiko Izarritz mendira. Irteera: goizeko 9etan, Aretxabaletako partenoitik.

ANTZERKIA
 Goaz taldearen: "Fernando bizi-rik hago oraindio". Bergarako Zabalotegiko lokalean, arratsaldeko 7etan.

III. UDAZKENEKO JAIALDIA ESKORIATZAN

Arrasateko Al-Andalus kultur elkarteak antolatuta. Festa larunbat eguerdian hasiko da. 12,30etan, meza rozieroa izango da Pedro Deunaren elizan. Arratsaldeko 4,30etan Eskoriatzako dantza taldeak eta 5etan "Sueños de Andalucía" taldeak, dantza emanaldia eskeiniko dute. 6,15etan, "Al-Andalus" abesbatzak rozieroa eskeiniko du. 7,15etan, berriz, "Gorosarri" abesbatzak abestuko du.

ATZERATUEN ALDEKO JAIALDIA

Aretxabaletako akordeoi orkestrak eta Arrasate musikaleko tronboi laukoteak, hainbat pieza joko dute. Bestalde, Gasteizko Samaniego abesbatzak ere abestuko du. (Barre egiteko sketxak ere ez dira faltako). Zاراia zineman, gaueko 10etan.

15 ASTELEHENA**ZINEA**

"Parque Jurásico". 7etan eta 9,30etan.

TXURI BELTZ

ETBn, gaueko 10,30etan. Gaia: komunikabide handiak eta txikiak. ARKO elkartearen izenean, Mikel Irizarrek parte hartuko du.

ANTZERKIA

Txontxongilo taldeak "Herensugea" obra antzeztuko die, eskolaurreko haurrei. San Frantzisko Xabier ikastolan, goizeko 10etan eta 11etan; Olarteko haurrei zuzendua. San Andres ikastetxean, 3etan; San Andres eta San Viatorreko ikasleei zuzendua.

16 ASTEARTEA**ZINEA**

"Parque Jurásico". 7etan eta 9,30etan.

ANTZERKIA

Txontxongilo taldeak "Herensugea" obra antzeztuko die, eskolaurreko haurrei. Umezaintzan, goizeko 10etan eta 11etan bertako haurrentzat. Erguin ikastetxean, arratsaldeko 3etan.

HITZALDIA

"Euskara Batua eta Euskalkien arteko hartu emanak". Hizlariak: J.M. Elexpuru, Iñaki Mendiguren eta Meri Arroyo. Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan. UEU eta Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta.

HITZALDIA

"Vida cotidiana y ecología". Hizlaria: Mikel Reguero. Eskoriatzako kultur etxean, arratsaldeko 6,30etan.

17 ASTEAZKENA**ZINEA**

"Parque jurásico" 7etan eta 9,30etan."

BATZAR INFORMATZAILEA

Euskaldunon Egunkariaren, egoera eta etorkizunaren azalpena. Monterronen, arratsaldeko 7etan.

BOSNIARREI LAGUNTZA

Bosniarrei laguntza bidali nahiz badiezu, hona hemen premia duten gauzen zerrenda: arrain edo haragi kontserbak, gari hirina, bizarra mozteko tresnak, hortzak garbitzeko pasta, xanpua, barruko arropa, artile eta orratzak, mantak, kandelak, neguko erropa eta oinetakoak, izarak, painalak... Sebero Altubeko enparantzan dagoen lokalera eraman, azaroaren 21a baino lehen. Astearte eta ostegunetan, 6etatik 8etara; larunbatetan 11etatik ordu 1era eta 4etatik 6etara. Igandetan, 11etatik ordu 1era.

HAUR LIBURUTEGIKO LIBURU BERRIAK:

- *KELLEHER, Victor*: Hermano noche
- *DODGE, Jim*: Xele
- *DODGE, Jim*: Elefantes
- *HOROWITZ, Jordan*: Daniel el travieso
- *SEERS, H. Waddingham*: Historias de la naturaleza para contar a los niños
- *ITURBIDE, Montxo*: Antzerkilandia
- *SWIFT, Jonathan*: Gulliver Liliputen
- *CORTÁZAR, Julio*: Manual de cronopios
- *EALES, Stan*: El libro del ecohumor
- *HENNING, Anne de*: La India
- *INNOCENTI, Roberto*: Rosa Blanca
- JANER MANILA, Gabriel*: Acuérdate de los dinosaurios, Ana María
- *LAVELLE, Sheila*: La gran pestilencia
- *METER, Leo*: Cartas a Bárbara
- *PATHERSON, Cynthia*: El tesoro del robleal
- *SCHULTZ, Charles M.*: ¿Por qué Charlie Brown, por qué?
- *SIERRA I FABRA, J.*: La balada del s. XXI
- *ALCÁNTARA, Ricardo*: Catalina la binimel-lá
- *CEREZALES, Agustín*: Prometeo
- *GORDON, Jo*: Reciclar
- *BREZAN, Jurij*: El gato Mikos
- *COLE, Babette*: El libro tonto
- *HAWCOCK, David*: ¿De quién es esta nariz?

18 OSTEGUNA**ZINEA**


"El Fugitivo". 7etan eta 9,30etan.

MANIFESTAZIOA

Soldadukaren aurka eta intsumisioren alde. Arrasateko Talde Antimilitaristak antolatuta. Eguediko 12tan eta arratsaldeko 7etan.

ARRASATE MUSIKALEKO BATZAR OROKORRA

Gaiak: aurreko aktaren irakurketa eta onarpenera, kontuen balantzea eta egoera, ekin-tza akademikoak, bazkideen kuota.... Arratsaldeko 6,30tan lehen deialdia eta 7etan bigarrena, akademiako hitzaldi

"GAZTEAK MARTXAN LEHIAKETAKO ARGAZKI IRABAZLEAK IKUSGAI DAUDE MONTE RRONEN"

“Anne Igartiburu, euskal telebista-
ren panoraman dauden neska ederren artean erakarga-
riena eta pertsonalitate handienekoa, aurkezle gisa
egiten duen lanarengatik, kamaren aurrean egoten
dakielako, eta bere edertasunarekin, autonomikien
dibortzioa dela eta maitasun platonikoen egarri den
ikusleko kopuru zabalaren pantailak eta bihotzak
apurtzen ari delako. Profesional gisa egiten ari den lan
bikainarengatik Anne Igartibururi gure zorionik zintzoe-
nak helaraztea eskatuko genioke ETBri”.

La ría del Ocio

“Animaliek negar egiten dute
amorruren amorruez. Euren eskubideak arautu eta
babestuko dituen lege baten zain hainbeste urtez egon,
eta azkenean kalean dago txapuza. Zelako sentsibilitate-
rik eza batzorde baten begiratu eta desadostasun bat bera
ere adierazi barik onartu duten parlamentariena!

Exteko animalia batzuk bakarrik arautzen dituen
Lege bat da. Txakurrentzat eta katuentzat egina dela esan
daiteke. Basoko fauna bere ingurune naturalean babestu
eta kontserbatzea Lege horretatik kanpo geratzen da.
Edozeinek harrapa dezake horietako animalia bat, eta
Legeak babestua ez bada, etxekotzat kontsideratzen da.
(...)

Lege bat egiterakoan animaliarengan pentsatu behar
da, bere benetako beharretan, eta ez beti gizakien
ikuspuntutik arazoituz, guretzat beharrezko diren
higiene-neurrietatik. Ez dugu sekula ahaztu behar
animaliak garela, eta gure eginbeharra dela lurrean bizi
diren gure anaiez arduratzea. (...)

Interesatzen zaienean, badakite lege zorrotzak egiten,
eta uste dut denbora modernoekin bat datorren bat
erditzeko ordua dela. Lege aurrerakoiekin gehitu egiten
da herri baten sentsibilitatea eta mentalitatearen aldake-
tarako laguntzen da”.

Klara Elkorobarrutia 93-11-4



**Zenbat insumiso daude
Arrasaten?**

Bataz beste, berrogeitama-
rren bat insumiso daudela
esan dezakegu. Azkenaldian, gai-
nera, kopuru honek igoera na-
barmena izan du, eta aurreran-
tzean ere gehituz joango da.
Hauetariko inork, eta ezta Deba
Garaian dauden gainontzeko in-
tsumisoek ere, ez dute epaiketa-
rik azaroan. Baina laster, guta-
riko edozeinek epaitegira hurbilt-
zeko deia josoko du. Uste dugu
epaiketen prozesua azkar doala,
beraz, eta aurrerago esan beze-
la, Gipuzkoan gauden gainont-
zeko insumisooi ere edozein mo-
mentutan epaitegira hurbiltzeko
txanda etorriko zaigu.



Xabi Torres
Arrasateko Talde Antimilitaristako partaidea

Astlehenean, Gipuzkoan egin den bigarren epaiketaren emaitza
jakin genuen. Iñaki Camacho insumisoari ezarritako bi urte, lau
hilabete eta egun bateko zigorra gehiegizkoa iruditzen zaigu. Baina
era berean, kontzientzia eragozpen legea aldatzeko eskatuz tribuna-
lak Espainiako gobernuari egin dion eskaria positibotzat jotzen dugu.
Dena den, ikusi egin behar da, ea zein zigor jartzen dieten ondorengo
intsumisoei. Era honetan, Gipuzkoan epaiketek zein norabide izango
duten jakin ahal izango baitugu.

Azkenik gogoratu, datorren asteke asteazken eta ostegunean
soldadutzara joateko ohizko zozketak egingo direla. Honen aurka
protestatzeko hilaren 18an, ikasle guztiei greba egin dezaten dei egin
nahi diegu. Era berean, Arrasaten egingo diren bi manifestazioetan
parte har dezaten eskatu nahi diegu. Lehena eguerdiko 12etan
izango da eta bestea arratsaldeko 7etan.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Autokarabanak alokatzen dira!
METS
T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezko piezak eta osagarriak.




Epeleko errepedeko lanak

Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariek Epeleko errepedeko lanak bisitatu zituzten joan den ostiralean. 3,8 kilometro luzeko errepede honen bitartez, Kanpazarrekin lotura azkarragoa izango dute Bergaratik datozen autoek, Arrasatetik pasatu beharrik gabe. Bi bideko errepedea izango da, baina igotzeko ibilgailu geldoentzat hirugarren bide bat ere egongo da. Lanak abendua-ren 25erako amaituta egongo direla esan zuten Diputazioko arduradunek, eta trafikoa Gabonetan bertan ireki daiteke. Bisitaldian Eli Galdos diputatu nagusia eta Roman Sudupe azpiegitura diputatua izan ziren. Sudupek esan zuenez, obraren zati gipuzkoarra amaituta egongo da honenbestez, eta Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio orain jarraipena, hau da, Kanpazar azpitik Elorrioruntz egin behar den 400 metroko tunela. "Bizkaiko Diputazioak zehaztuta dauka proiektu hori dagoneko, eta 1994ko aurrekontuetan sartzeko asmotan dabilta", esan zuen Roman Sudupek.

Errepide arrisksua

Epeleko bidegurutzeko obrak direla eta, bertako errebueltetan gertatzen ari diren istripuen ugaritasuna salatu dute inguruetako bizilagunek. Obrak hasi



Ederlaneko sutea

Joan den asteko asteazkenean Ederlan kooperatibak izan zuten suteak luzarorako kalte eta ondorioak ekar ditzake. Fundizioko labeetako batetik, 1.500 gradotan urtutako burdina isuri zen istripuz, eta horrek sortutako suteak lantegiaren behelaldea kiskali zuen. Bi labe handi, beste lau txikiago, eta lantegiko beste sekzio batzuk oso kaltetuta geratu dira. Ederlanen kezka, nazioarteko kontratu garrantzitsuei erantzutea da orain, produkzio eta zerbitzu-gaitasuna oso afektatuta geratu zaienez sute tamalgarriaren ondorioz. Horregatik, Fagorrek automozio osagaietarako dituen beste bi lantegietako labeekin beteko dute produkzioa, Amat eta Usurbilgo Luzuriaga lantegien bitartez. Kalteen kopurua oraindik neurtzen ari direla adierazi du Fagorrek, eta, edozein kasutan, aseguru etxeek erantzungo dutela. Argazkian, Ederlaneko labeetako sekzioko irudi bat, sutea baino lehenagokoa.

zirenetik 22 istripu izan dira bertan, eta oso toki arriskutsua bihurtu da. Bertako bizilagun batzuek idazki bat bidali dute udaletxera, neurriak eskatuz, baina badirudi erantzukizuna Foru Aldundiarena dela.

Maskarada taldearen antzerki emanaldiak

AEDren 10. urteurrena ospakizun egitarauetan, antzerkiaren txanda izan zen

joan den larunbatean. Bernardo Atxagaren lanean oinarritutako 'Logalea zeukan ekilibristaren kasoa' taularatu zuen Maskarada antzerki taldeak. Obra umeentzako dela esan daitekeen arren, jende guztiaren gozamenerako modukoa da antzeslan hau, eta halaxe ulerturik eskertu eta txalotu zuen jendeak Maskaradako antzespena. Bilboko taldearen muntaian, iluntasun eta argi fluores-

zenteen joko nabarendu zen. Publiko zabalerantzako emanaldiaz gain, ikasleentzako bi antzespen berezi eskaini zituen Maskaradak ostiralean.

Antzinako irudien lapurreta

Elorrioko pertsona bat, F.J.G.G. 34 urtekoa, atxilotu zuen Ertzaintzak joan den astean ustez Arrasaten lapurretan egiteagatik. Antza denez, Biteri kaleko abandonatutako etxe batetik antzinako gauzak ostu zituen pertsona horrek, horien artean Ama Birjiñaren irudi bat. Etxe hori botatzekotan egon arren, barruan gauzak gordetzeko almatzen moduan erabiltzen dute. Ustezko lapurra Elgetan atzeman zuten ertzainek, furgoneta batean Arrasaten ostutako gauzak zeramatzala.

JAIOTZAK

- Yerey Estrella Sanchez. Azaroaren 4ean.
- Joana Galan Segovia. 7an.

ESKONTZAK

- Julian Zuazabeitia Olabe & Margarita Garmendia Guinea. Azaroaren 6an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Cristina Troutin Estevez. Azaroaren 1ean. 18 urte.
- Jose Ugarte Medina. 2an. 81 urte.
- Maximo Diaz de Antoñana Sagastui. 4ean. 76 urte.
- Rosario Lasagabaster Artola. 5ean. 91 urte.
- Claudia Ugalde Gordovil. 8an. 86 urte.
- Jose Zubia Arana. 8an. 69 urte.


MENDI
Taberna
Mendi da zure etxea
Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

BASABE
JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tfnoa: 79 91 84
ARETXABAETA

LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



JOSE RAMON ZUBIZARRETA *

Kooperatiben legea eta hezkuntza

Kooperatibei buruzko legeak zer suposatu digun hezkuntz kooperatibei? Gure kasuan, esan beharra dago, ez dela lege bakarria etorri zaigun legea. Jakina da, Hezkuntz kooperatibetan hezkuntz munduak eta enpresa munduak bat egiten dutela. Honela izanik, esperientzia ezin aberatsagoa suertatzen ari zaigu.

Gure egoera nolabait argituta, kooperatiba legeari buruz arituko naiz.

Hezkuntz kooperatibak aspaldi martxan jarriak dira; Ikastola ugarik legalitatean aritzeko kooperatibaren egituraketa hartu zuten. Baina errealitatean ikastetxe askotan formula hutsa bezala gelditu zaigu. Honela sortu dira erabaki sendoak hartzekotan zenbait eztabaida eta ulertezin.

Berazk, lege berri honek praktikotasunean sartzeko posibilitatea bideratzen digu.

Egin beharreko lehenetarikoa gauza kooperatiba bakoitzeko Estatutoak egokitzearena dugu, urrats hau ematerakoan barne gogoeta bat bideratzeko bete dugu.

Alde batetik kooperatiba izatearen oinarrietan sendotzeko eta bestaldetik gaur egun kooperatibetako estamentuetako partaidetza bultzatzeko.

Honez aparte, lege berri honek beste zenbait posibilitate irekitzen dizkigu. Alde batetik kooperatibetako estamentu desberdinen berplanteamentua, eta bestalde Hezkuntz munduan partaide diren estamentu guztien parte hartzea. Honekin zera esan nahi dut: orain arte, dakizueenez, bi eratako kooperatibak genituen, bata Gurasoen kooperatibak, gurasoak zirelarik bertako bazkideak, eta Lan Elkartekoak, irakasleak biltzen zituzten kooperatibak. Honez aparte kon-

tsumoko kooperatiba barnean bazen beste formula bat, Mixtoa; honetan gurasoek, irakasleek eta bazkide laguntzaileek bat egiten zuten, hain zuzen Hezibideko ikastetxeek aurrera eraman duten formula izan delarik.

Orain, Hezkuntz kooperatiben barnean, hiru kooperatiba mota izango ditugu: 1. Gurasoen kooperatibak, 2. Irakasleen kooperatibak edo Lan Elkartekoak eta azkenik kooperatiba bateratzaileak, berria ez den formula, baina bai izena, bertan guraso, irakasle eta bazkide laguntzaileek parte hartuko dutelarik.

Formula honetan proiektu amankomun batekin elkarrekin lan egiteko aukera dugu, zeren gurasoek izango zuten euren protagonismoa, bai irakasleek nahiz laguntzaileek. Eskola integratzaile baten aurrean gaude.

*** EUSKADIKO IRAKASKUNTZA KOOPERATIBEN FEDERAZIOKO LEHENDAKARIA**

USTEAK USTE

ELURRA

Aldizkariko orrietan arakutzen baduzue, notizia tonto bat aurkituko duzue agian: elurteetarako lehentasunak markatu ditu Udalak, prebisio miresgarriz, lehenbizi hau garbitzeko, gero bestea eta horrela. Gainera, alkateak bando bat ere kaleratuko ei du elurra egiten duenean, jendeari etxe-aurreak libratzeko eskatuz eta. Ez zaizkit politika egokiak iruditzen. Elurra egiten duenean, jai eman beharko ligukete, beste barik, errepideak itxi, eskola edo fabrikatik irten eta, hala, elkarri bolak jaurtitzera. Ni institutuaren nabilenean itxi egiten zuten eskola, izan ere, institutuko kristalek apurtzeko joera hartzen baitzuten elur malutak jausten hasi orduko. Baserritarrentzat ez dakit, baina kaletarrantzat ilusiorako atxakia da elurra, eta hobe lukete agintariek, halako egun polita iristerako, "ondo pasau" esatea bandoetan, eginbeharrak gogoratu barik. Udalak bezala, nik ere egin ditut prebisioak: Elgetan bizi naiz eta, logikoa den bezala, ez dut katairik erosteko asmorik.

LUIS FERNANDEZ

SUPERMERKATUAK





Udala eta Uribarriko baserrietarako buzoiak nahiko deskuidatuta daude Erguingo eskolaren parean.

Correos-ek ez du posta baserrietara eroaterik gura

Baserrietara ez da gutunik iristen; horixe da Arrasateko baserriar gehienekexua. Bizilagun guztiek daukate postaz bidaltzen dizkietenak etxean bertan jasotzeko eskubidea, baina baserri-auzoetan bizi direnekin ez da betetzen gutxieneko zerbitzu hori.

Bedoña, Udala edo Uribarriko baserriarrek arazo izugarriak dituzte berei dagozkien kartak eta abarrak jasotzeko. Gehienek posta-kutxatila daukate irekita postetxean, 2.000 PTA ordaintzen dute urtean, eta pertsonalki jaitsi behar dute herrira, kutxatila husteru. Bedoñako kasuan, kutxatila kolektiboa daukate postetxean, eta handik pertsona batek eroaten ditu kartak Bedoñako tabernara, bertan baserri bakoitzak bere buzoia daukanez. Gesalibar eta Garagartzan, ordea, ez dute arazo hau, auzo-postari bat baitaukate aspalditik (baina bi urte barru jubilatuko da).

Auzo alkateek sarritan azaldu diote beren kexua Correos-i, baina honek eskaini

dien guztia buzoi-kaseta batzuk jartzea izan da. Erguinen adibidez, Udala eta Uribarriko baserrietarako kaseta bat dago, baina honekin ez da gauza handirik konpontzen: urrin geratzen da, eta kasetak lapurreta edo erasorako aproposak dira (irailean gertatu dira eraso kasu batzuk). Bedoñarako antzerako irtenbidea proposatu du Correosek, kaseta bat jarri herri irteeran; baina auzo-alkateak ez du hori onartzen eta posta Bedoñako tabernara bertara igo diezaietela eskatzen du, buzoiak bertan badauzkatenez.

Udaleko auzoetako batzordetik auzia konpontzen saiatu dira Correosekin, baina beren esku ez dagoela erantzun diete Arrasaten. Ondoren, Gipuzkoako posta-agintaritzara jo du Isabel Zuazubiskar auzoetarako zinegotziak, baina erantzunaren zain daude. Posta etxean jasotzeko eskubidea legeak zehazten duenez, Arartekoarengana joatea da udaletxean aztertzen ari diren beste aukerara bat.

Tximistorratz erradiaktiboak

Arrasaten egon daitezkeen tximistorratz erradiaktiboen errolda egitea eskatu dio Eguzki talde ekologistak Udalari. Tximistorratz arriskutsu horiek zenbatu ondoren, zerrenda Enresa enpresa estatalari bildatzea eta kentzea esijitzea eskatu dute, era berean, legeak horretara behartzen baitu Enresa. Tximistorratz hauek amerizioa duen kapsula bat daukate, eta edozein ezbeharren ondorioz, kapsula zabaldu eta ingurua kutsa daiteke. Gobernuaren datu ofizialetan, Arrasaten horrelako tximistorratz bat dagoela azaltzen da, Aurki kooperatiban, baina gehiago egotea ere posible dela dio Eguzkik. Inguruko herrietan ere tximistorratz asko daude.

Ingurunea berreskuratzen Aretxabaletan


Aretxabaletako ospitale zaharreko ingurua berreskuratzekeo proiektu bat onartu du Diputazioak, Gipuzkoako beste bi inguru errekueratzekeo asmoarekin batera. Aretxabaletako sahisbidearen eta trenbide zaharraren arteko terrenoa da berreskuratuko dena, bertan aisialdi eta atsedenerako ingurune berde txukun bat egokitzekeo. Diputazioko ingurugiro sailaren egitasmo honen aurrekontua 17 milioi PTAkoa da.



PAZI-OLA S.A.

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



Kapirixoko ordezkariak joan den ostiraleko batzarreko mahaian.

Dagoeneko hiru ekimenetan lanean dihardu Kapirixok

Kapirixoko elkarteak, Deba Garaiko ondarea babesteko elkarteak, osatuta dago jada ofizialki, estatutu batzuekin eta zuzendaritza batekin. Estatutu horietan azaltzen dutenez, Kapirixoren helburuak kultura-ondarea ezagutaraztea eta horri bere onean eustea dira. Joan den ostiralean Bergaran izandako bilera batean onartu zituzten estatutuak, eta bertan hautatu zuten lehendakaria (Juanxo Madariaga) eta idazkaria (Anaje Narbaiza).

Elkartea jaioberria den arren, badihardu lanean dagoeneko. Batetik, Maltzaga-Urbina IGPetarako inizatiba bat aurkeztu dute, trazaketa posibleetan ondare kulturalak ja-

san ditzakeen kalteak kontuan hartzeko eskatuz. Horrez gain, Elgetako Madalena ermitan egin behar dituzten obra batzuk direla eta, ikerketa bat eskatu dute. Eta Eskoriazako Mugarri-luze monolitoaren inguruan Ertzaintzak jarri nahi duen antena eta pista-eren inguruan ere estudio bat eskatu dute.

Oraingoz 110 bat bazkide ditu Kapirixok, baina Arrasatekoak oso gutxi dira. Pare bat bilera antolatu dira, baina ez dute erantzun handirik izan. Hala ere, ondarearen inguruan Arrasaten ere kezka egon bada-gonez, oraindik beste bilera batzuk antolatzeko asmoa daukate.

Gabonetako argiak eta plenoa

Ostiral honetan plenoa egingo da berriro, aspaldiko partez. EAJk Gabonetarako argien auzia eroran nahi zuen pleno honetara, Gobernu Batzordean argiak kontratatze-ko erabakia atzera bota eta gero, baina azkenean ez diete onartu puntu hori gainordenean. Argietarako dirua gordetzea plenoko erabaki bat izan zen udaberrian, EAJ eta PSOeren botoez; baina Gobernu Batzordean urrian ukitu zuten gaia, eta erabaki hari buelta eman zioten.

Kale garbiketa egokitzen

Azken garai hauetan, Arrasatek "gehiago" dauka garbitzeko: San Kristobalگو hilerria, Mugarritte, Lauka-leko etxeetako urbanizazioa, Santa Barbara parkea... Lan gehiago egon arren, aurrekontuetara egokitzeko beharra ere hor dago, eta horregatik, gastuak igo barik inguru berrietara iristeko plan bat onartu du Udalak, CESPAn garbiketa enpresari aurkezteko.

HITZALDIA

Gaia: Zirkulazioa eta Barizak

Emalea: Ana Arrieta

Eguna: 16, asteartea

Ordua: 3,30etan

Tokia: AED Elkarteak

Antolatzaileak: AEDko EKIN Emakume Taldeak





Roneoko langileak beren arazoà tratatzeko egin zen udalbatzan.

Roneo: despidorik ez, baina lanpostu galera bai

Azken asteotako lan-gatazka luzeari, Roneoko auziari, amaiera iritsi zaio. Akordioa lortu dute langileek eta enpresako zuzendaritzak. Horren arabera, ez dituzte 74 langile kanporatuko, baina 42 baja gertatuko dira. Bidean, borroka luzea, eta herriaren elkartasuna urriaren 22ko lanuzte orokorrean.

Borondatezko baja horiek ("borondatezko, komatxo artean", diote sindikatuek) hartu dituztenak indemnezio egokiekin joango dira kalera, iazko abenduan lana utzi zutenen egoera beretsuan. Hala ere, balantza ez da erabat langileen alde geratu. "Ez da

egon galtzailerik edo irabazlerik", diote sindikatuetan. Akordioaren letra txikian, azken urteetan lortutako onura sozial batzuk galdu egingo dituztela irakurtzen da. Beka sistema bat eta etxea erosteko prestamoak izateko aukera galduko dute langileek; datorren urtean ez diete jornaia igoko, eta lan-erregulazio sistemaren bitartez, txandakako bajetan egongo dira langileak datozen urte bietan.

Roneoko konponbideak bere alde ozpindu dauka: lanpostuak galdu egin dira, beste hainbatetan bezala; despido barik, baina enplegua deuseztatuz.

Elurteetarako lehen tasunak

Iaz gertatutako elurte handia errepikatzen bada, brigada munizipalاک zehaztuta edukiko du lehen tasunen zerrenda. Udalak honela sailkatu ditu garbitu eta libratu beharreko puntuak: 1., herri barruko errepide komarkalaren bidea da; 2., Diputazioari lagundu saihesbidea garbitzen; 3., kasko zaharra, Otalora eta ospitalera sarrerak; 4.a, goikaldeko auzoak, eta 5.a Udala, Bedoña eta baserri auzoak. Gainera, elurterik badago, alkateak bandoa kaleratuko du herritarrei beren etxe inguruak eurek garbitu ditzatela eskatuz, Eskandinabia bezalako zibilizazio-guneetan egin ohi duten bezala.

Torturaren aurkako ekimena

Torturaren aurkako herri ekimena aurkeztu zen ostegunean Arrasaten. Sinadura bilketa egiten aritu da talde hau azken asteetan, hiru helburu nagusirekin: gaurko lege bereziak ezabatzea, Epaitegi Nazionalaren desagertaraztea eta tortura delitua tipifikatzea.

AMORE EMANGO DUZU !

ART 3

Iturriotz, 19 ARRASATE

Ipek Denda

Zetaz jantziko zara



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan

ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE

Goizeko 9etatik 1a arte

TFNOA: 79 19 21

Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86



Idiomaster akademian, ingelesa, frantsesa nahiz alemana ikasten ari diren ikasle eta irakasleek partya egin zuten, joan zen ostiralean. Argaz-

kian ikus daitekenez, denetik jateko aukera izan zen eta nola ez, bakoitzak ikasten duen hizkuntzan mintzatzeko aukera ere izan zuen.

EPELDE



Juan Carlos Salazar eta Ana Torga irailaren 1 In ezkondu ziren. Zorionak!



Gesalibar eta Garagartzan meza ematen hasi zenetik hogeitabost urte pasatu direla eta, Iñaki Galparsoro apaizari, omenaldi beroa egin zioten joan zen igandean. Ospakizuneko bazkaria, Garagartzako Leze-Txiki elkartearen egin zuten, honek ere hogeitabost urte betetzen zituela aprobetxatuz. Bazkalostean, argazkian ikus daitekeen oroigarria eman zioten apaizari.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Askotxo dira Donostian bizi diren arrasatearrak. Horregatik, noizean behin bildu egiten dira euren arteko harremana eten ez dadin. Joan zen larunba-

tean ere, hirurogeitamarren bat batu ziren. Biltzeko arrazoia bi arrasatear omentzea, **Joxe Arriaran** eta **Santi Etxebarria** pilotari

izandakoak. Hain zuzen ere, biltzen hasi zirenean pilota partidua jokatzeraz joaten zirelako izan dira omenduak.

Francisco Cabello Sorianori, lanean zegoela esan zioten kutzako kotxea berari tokatu zitzaioela. Joan zen ostiralean kutzako bulegora joan zen, kotxearen giltzak jasotzera. Orain berak aukeratu beharko du: aurtengo maiatzean erosi zuen kotxeaz edo berriagoa den honekin geratu.



IZEN PROPIOAK

● Esther Balanzategi

Arregi, 31 urte, izango da gazte bulegoko informatzailerlea. Esther arrasatearra da eta pedagogian lizentziatua, sozio-kulturako modulo bat ere egina dauka.

● "Gazteak Martxan" argazki lehiaketako irabazleak honako hauek dira: B kategorian: Lehen saria **Juan Jesus Huelva**, Algecirasekoa. Bigarrena **Karmelo Uribarren**, arrasatearra. Hirugarrena **Fermín Etxebarria**, zarauztarra. Laugarrena **Andrés Claudio**, Getafekoa.

A kategorian: lehenengo saria ez diote inori eman. Bigarrena **Alejandro Plaza** arrasatearrari eman diote.

● **Amaia Aedo**, 22 urteko bilbotarra, udaletxean administrari laguntzaile bezela hasi da lanean. Amaiak fisikako lehen eta bigarren urteak eginak ditu.

lurrindegia
perfumeria

ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

Onduline

URALITA

TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



SUKALDE LILURAGARRIAK!

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5

URRETXU

Tfnoa: 72 50 75

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79 99 42

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Puntu-kenketaren ondorioak

Arbitroen jokabidea bihurtzen ari da txapelketako albiste nagusia. Aste honetan beste hiru zigor ezarri dituzte antolatzaileek, eta dagoeneko lau talderi bi puntu kendu zaizkio. ARRASATE Pressek astero argitaratzen dituen sailkapenetan ez dira azaltzen kendutako puntu horiek, antolatzaileek ez baitituzte deskontatuko lehen fasea amaitu arte. Kontuz, be-

raz, zenbaketa horiekin. Aste honetan, adibidez, Argi Ibiliri B taldean lider azaltzen denari bi puntu kendu dizkiote, eta beraz, bere lidergoa "gezurrezkoa" da. Puntu-kenketa epide miaren arrazoia? arbitro kaskarrak. Antolatzaileek ganora gutxi dagoela komentatu digute, eta aurrerantzean ere gogor arituko direla ohartarazi digute.



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

Garaiko perretxikoak urte
guztian zehar!!

RUTH
GATZAGA

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
TRIKITI	6	6	0	0	33	6	12
SUM. UGARTE	6	6	0	0	43	8	12
ARLUTZ	6	6	0	0	33	9	12
ANBOTOSTE KT	6	5	0	1	20	7	10
JEY JULIWER	6	4	1	1	24	11	9
BERANGO SUKALD.	6	4	0	2	21	9	8
ZOTZ	6	4	0	2	22	26	8
BIZKORRAK AVE. T.	6	2	2	2	17	19	6
SOKOAKOAK	6	3	0	3	17	23	6
KOXKAS	6	2	1	3	18	17	5
UGLYS TXINATO	6	2	1	3	20	21	5
ALLA KUIDAUS	6	2	0	4	17	23	4
WHISK. LINDE	6	2	0	4	12	22	4
BAYERN LENITZ	6	2	0	4	9	25	4
RESAKAS	6	1	1	4	17	28	3
IKATZ	6	1	1	4	15	31	3
FRAGUEL GOL	6	1	1	4	7	13	3
EUSKAL INDARRA	6	1	0	5	13	28	2
ETXE MOBILIARIO	6	1	0	5	13	29	2
AUF DEM KOFFER	6	1	0	5	9	25	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	6	6	0	0	46	16	12
ZULOAK	6	5	1	0	27	15	11
LEINTZ GARAGAR.	6	4	1	1	29	12	9
IRATI STS	6	4	1	1	27	14	9
DANOK LAGUN	6	3	3	0	15	9	9
ALPEN KRAUSSER	6	4	1	1	32	28	9
BUKANAK	6	4	0	2	30	14	8
ARR. KIROLAK	6	4	0	2	18	15	8
TRONKOTEAK	6	3	0	3	23	25	6
NOTXINGAN FLO.	6	2	2	2	17	19	6
BETRAYER	6	2	1	3	25	26	5
OJO AVISORE	6	2	1	3	26	30	5
GANBELAS	6	2	0	4	21	23	4
KOPYPREST	6	2	0	4	20	27	4
OOOLE	6	2	0	4	14	22	4
DIEGO ANTONIO	6	1	1	4	22	26	3
MONTERREY Z.BEL	6	1	1	4	19	24	3
EXC. LETE	6	0	3	3	12	25	3
FANCY BOIS	6	0	2	4	17	27	2
ATXANTA KE TE...	6	0	0	6	9	52	0

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
FOSFOROS	6	5	1	0	36	6	11
NABARROS	6	5	0	1	20	7	10
LOS HEREDIA	6	5	0	1	19	13	10
ARR. KRISTALDEGIA	6	4	2	0	26	13	10
MIKELOS	6	4	1	1	26	13	9
KIRTEN TROPEL	6	3	2	1	19	20	8
PEPELUS	6	3	1	2	27	13	7
LOS DALTON	6	2	2	2	29	25	6
KAKAJAURI	6	2	2	2	15	13	6
HIREI	6	2	2	2	22	22	6
ADELAIDA HAIZEA	6	1	3	2	14	16	5
TXOKO TABERNA	6	2	1	3	11	17	5
LEYA	6	2	1	3	18	32	5
MOTZ	6	2	0	4	17	19	4
SIBILIUS ROVER	6	2	0	4	11	15	4
FOTO IMAGEN	6	1	2	3	19	24	4
MZK GANBELAS	6	1	2	3	14	22	4
BORROCKN ROLL	6	2	0	4	14	34	4
POTROSORRI	6	1	0	5	8	17	2
CORINTO TABERNA	6	0	0	6	13	44	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
AC SURCOS	6	6	0	0	39	11	12
ZULUS	6	5	1	0	43	21	11
CARBUIROS	6	4	2	0	28	9	10
TOVARITX	6	5	0	1	23	14	10
NUEVO TABERNA	6	4	1	1	23	11	9
POTROAK LORATEGI	6	3	2	1	27	16	8
TUTTIFRUTI	6	3	2	1	32	20	8
REVOLUTION ROCK	6	4	0	2	22	15	8
KRISKIBALDA	6	3	1	2	21	16	7
LASO ARREGI	6	3	1	2	19	15	7
FRANCISCANERR	6	3	0	3	22	21	6
BODISCA	6	2	1	3	16	19	5
LOS DIMY	6	0	4	2	14	19	4
GURE LEKU	6	2	0	4	18	27	4
MACCABI DE LEV...	6	1	1	4	13	23	3
ILUNA TABERNA	6	1	1	4	16	38	3
SOLANO 7 MARES	6	1	1	4	15	39	3
KOAK LAIT	6	1	0	5	16	29	2
ELISABETH	6	0	0	6	14	38	0
EZKINAKO HONTZAK	6	0	0	6	9	29	0

SEAT Udalaitz, S. A.

Audi

VW

Bigarren eskuko ibilgailuak 18 hilabeterako garantiaz

Musakola auzoa, z/g Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25

ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa berria: Kanpatorpea, 2 (Parrokia ondoan) ETORRI IKUSTERA!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

ME

MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zembakidun Aseguru Artekaria
Arrisku gerentea

Boulevard, 11 5^o-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

BELARRIRA

Asteburu honetarako partidu interesgarrienen artean, honako hiru hauek aipatuko ditugu: Argi Ibili - Irati STS (B taldean); Arlutz - Suministros Ugarte (A taldean), eta Fosforos - Hirei (C taldean). Futbolaz aparte, arbitroen jokabidea ere zaindu beharko da, azken asteetakoak ikusi ondoren.

◆ **Egutegi ofiziala.**
Zaldibarko egutegi ofiziala argitaratuta dago dagoeneko. Arrasate Kirolak etxearen laguntzaz, txapelketako lehen faseko parekatze guztien zerrenda dauka egutegiak, eta horrekin batera aurtengo azken hilabeteen eta datorren urtearen egutegiak. Herriko hainbat tabernatan banatu dute, eta doan emango dizute bertan, eskuratu nahi baduzu.

◆ **Abenduko zubia.**
Datorren hilabeteko lehen astean, Konstituzioaren jaia (abendua 6) eta Kontzeziño eguna (abendua 8) batzen direnez, zubia egingo da eta bost eguneko asteburu luze bat egongo da. Batek baino gehiagok oporrak hartzea pentsatuko du, baina kontuz: Zaldibarko txapelketa ez da etengo. Gainera, agian, partiduak zubiko bost egunetan zehar banatuko dituzte (4tik 8ra), eta era horretan talde guztiek Zaldibarko frontoian jokatzeko aukera izango dute.



EMAITZAK

A TALDEA

- Berango Sukaldeak 6 - Whiskeria Linde 1
- Auf dem Koffer 4 - Etxe Mobilario 3
- Anbotoste KT 2 - Fraguel Gol 0
- Alla Kuidaus 1 - Jey Juliwer 4
- Arlutz 10 - Resakas 2
- Nayern Lenitz 1 - Suministros Ugarte 10
- Bizkorrak Avenida Taberna 3 - Uglys Txinato 3
- Euskal Indarra 4 - Zotz 5
- Ikatz 1 - Trikiti 8
- Koxkas 2 - Sokoakoak 4

B TALDEA

- Bukanak 7 - Tronkoteak 1
- Atxanta ke te merece 0 - Diego Antonio 11
- Argi Ibili 4 - Fancy Bois 2
- Alpen Krausser 5 - Irati STS 5
- Arrasate Kirolak 2 - Leintz Garagardotegia 1
- Betrayer 2 - Notxingan Florest 2
- Danok Lagun 2 - Ooole 1
- Excavaciones Lete 1 - Zuloak 1
- Ganbelas 4 - Ojo Avisore 6
- Kopyprest 7 - Monterrey Zubil Bel 3

C TALDEA

- Fosforos 3 - Potrosorri 0
- Txoko Taberna 1 - Hirei 1
- Arrasate Kristaldegia 1 - Kirten Tropel 1
- Adelaida Haizea 4 - Los Dalton 4
- Corinto Taberna 2 - Mikelos 6
- Borrokn Roll 1 - MZK Ganbelas 4
- Foto Imagen 2 - Pepelus 7
- Kakajauri 2 - Sibilius Robver 1
- Leya 0 - Nabarro 5
- Los Herdia 2 - Motz 5

D TALDEA

- Elisabeth 3 - Tuttifruta 6
- Bodisca 1 - Franbciscanerr 3
- Iluna Taberna 2 - Kriskibalda 9
- AC Surcos 4 - Laso Arregi 2
- Nuevo Taberna 6 - Maccabi de Levantar 2
- Carburos 4 - Revolution Rock 0
- Ezkiñako Hontzak 0 - Tovarixtx 4
- Gure Leku 6 - Zulus 9
- Koak Lait 3 - Solano 7 Mares 4
- Los Dimy 2 - Potroak Lorategi



URONDO
elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**
- * **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 13

Zaldibar

- 08.50 Kopyprest - Tronkoteak
- 10.00 Bizkorak Avenida Taberna - Zotz
- 11.00 Ezkiñako Hontzak - Zulus
- 12.00 Arrasate Kirolak - Notxingan Florest
- 13.00 Fosforos - Hirei
- 14.00 Los Dimy - TuttiFruti
- 15.00 Iluna Taberna - Laso Arregi
- 16.00 Bodisca - Kriskibalda
- 17.00 Ganbelas - Monterrey Zubi Bel
- 18.00 Bukanak - Diego Antonio
- 19.00 Kakajauri - Nabarros

Iturripe A

- 10.00 Argi Ibili - Irati STS
- 11.00 Arrasate Kristaldegia - Los Dalton
- 12.00 Berango Sukaldeak - Etxe Mobiliario
- 13.00 Atxanta ke te merece - Fancy Bois
- 15.00 Txoko Taberna - Kirten Tropel
- 16.00 Elisabeth - Franciscanerr
- 17.00 Betrayer - Ooole
- 18.00 Euskal Indarra - Trikiti

Iturripe B

- 10.00 Anbotoste KT - Jey Juliwer
- 11.00 Alpen Krausser - Lenitz Garagardotegia
- 12.00 Borrockn Roll - Pepelus
- 13.00 AC Surcos - Maccabi de Levantar
- 15.00 Arlutz - Suministros Ugarte
- 16.00 Excavaciones Lete - Ojo Avisore
- 17.00 Nuevo Taberna - Revolution Rock
- 18.00 Alla Kuidaus - Resakas

Igandea 14

Zaldibar

- 08.50 Gure Leku - Solano 7 Mares
- 10.00 Corinto Taberna - MZK Ganbelas
- 11.00 Auf dem Koffer - Fraguél Gol
- 12.00 Leya - Motz
- 13.00 Ikatz - Sokoakoak

Iturripe A

- 10.00 Bayern Lenitz - Ugly Txinatou
- 11.00 Koxkas - Whiskeria Linde
- 12.00 Koak Lait - Potroak Lorategi
- 13.00 Adelaida Haizea - Mikelos

Iturripe B

- 10.00 Danok Lagun - Zuloak
- 11.00 Foto Imagen - Sibilius Rover
- 12.00 Carburros - Tovarixtx
- 13.00 Los Heredia - Potrosorri



Garagartzako gloria, hutsaren pare

Garagartza auzoko mutikote pre-
tu eta bikainenak biltzen dituen Auf
dem Koffer taldea izan da asteburu
honetako protagonistetako bat. Orain
arte ez zuten partidurik irabazi, baina
lehengoan, denboraldiko lehen garai-
pena eta lehenbiziko bi puntuak lortu
eta gero, arbitratze txarratik kendu
egin dizkiote bi puntuok. Garagartzako
gloria, oraindik orain hutsaren pare,
beraz.

Auf dem Koffer-ekin batera, Argi
Ibili eta Kopyprest izan dira zigor gisa
bi puntu gutxiagorekin geratu diren
taldeak. Motiboa berbera da hiru ka-
suetan: arbitratze txarrak. Antolatzaileek
ohartarazi digutenez, aurreran-

tzear ere ez dute barkatuko horrelako
kasurik. Zaldibarren taldeek elkarri ar-
bitratzen dizkiote partiduak. Baina tal-
de bakoitzak pertsona jakin bat zeregin
horretarako izan beharrean, txandaka
edo zozketa hutsez bidaltzen dute arbi-
tro bat partidu bakoitzera, eta hori ez
da bidea, antolatzaileen iritziz.

Antolakuntzatik komentatu digu-
tenez, gauza bat da hanka sartzeari, uler-
tzekoa baita gizakiak akatsak egitea,
baina beste gauza bat da interes apu-
rrik ez jartzea, gogo barik, arretarik
jarri barik pitatzea eta geldi egotea,
jokoa segitu barik. Usteko motibazio
eta ganora falta hori da antolatzaileek
moztu nahi dutena zigorren bitartez.



Parques & Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Larazaintzako
mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Txaro Arregi, klase teoriko bat diaposituben bidez ematen.

Haurdunaldiei buruz ez dakiguna

Maidar Egües

«Zein izen jarriko diogu; Mikel edo Beñat?» Erabaki horrek bere garrantzia izan dezake, baina zer esanik ez, Mikel edo Beñat osasuntsu jaio dadin alde zuretik gurasoek hartu beharreko haurdunaldiko prestakuntza klaseek.

Emakume haurdun baten ardura, egon daitezkeen arduen artean handiena da. Bederatzi hilabeteetan zehar, bere gorputzak aldaketa izugarria jasango du. Bikote batek guraso izango dela dakien

unetik erditze momenturaino, gehienontzat ezezaguna den tarte garrantzitsu bat dago. Erguingo "Centro de Salud Mental" egoitzan, Txaro Arregiren ardurapean emakume haurdun asko prestatzen da erditze errezago bat izan eta haur-jaio berriari buruz jakin beharrekoak ikasteko.


ZER DIRA "PRESTAKUNTZA KLASEAK"?

Oso kontzeptu okerra dago haurdunaldiko klaseei buruz, izan ere jendeak bertan gimnasia besterik ez dela egiten uste du. "Gimnasia, prestakuntza osoko parte bat besterik ez da, eta gainera mi-

A

rrasateko emakume haurdunen % 92a etortzen da klase hauetara

nimoena", dio Txarok haserre. Klase hauetan denetarik erakusten zaie emakumeei, haurra nola bainatu edo umearen negarren motiboa. Klaseak bi zatitan banatzen dira: Klase teorikoak eta praktikakoak. Biak dira garrantzitsuak baina ez elkar-dependienteak. Haurdunaldiko lehen hiruhilabeteko klase teorikoetan, haurra nola elikatu, nola zaindu eta haurdunaldian zehar egon daitezkeen aldaketak azaltzen zaizkie emakumei. Azken hiruhilabeteetan, aldiz, emakume guztiak egoten dira kezka eta dudaz beterik, beraz, gaiak eta galderak berez ateratzen dira. Klase



teoriko hauen helburu nagusia, emakumeari beldurra kentzea da. Dena den, umea izan eta hilabete batetara, emakumeak "erditze-osteko" klaseetara joaten dira. Guztiz fisikoak dira klase hauek, erditze momentuan ahuldutako muskuloak indartzea baitute helburutzat.

JAKIN BEHARREKO DATUAK

Arrasateko emakume haurdunen %92a joaten da prestakuntza klase hauetara. Portzentaia hori oso esanguratsua da, 1976an %32a besterik ez zela joaten kontutan izanez gero.

Txaro Arregik dioenez,

Arrasatek betidanik izan du oso osasun-heziketa ona eta era honetako klaseei dagokienez, herri pioneroa da. Hemendik kanpo, E.Han oso herri gutxitan zeuden horrelako prestakuntza-klaseak. 1971an, Arantxa Arregi arrasatearrak, haurdunaldiko klase hauek ospitalean eman zitezela lortu zuen. Lorpen hura oso garrantzitsua izan da gaur egun dagoen asistentzia handi hau posiblea izateko. 1973an Txaro Arregi hasi zen eta gaur egun oraindik klase hauek ematen jarraitzen du.

260 bat emakume prestatzen dira urtero zentru honetan. Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga, Aramaio eta Arra-

sateko emakumeak batzen ditu. Zentrura joaten diren emakumeen batzbesteko adina ere aipatzekoa da, gaur egun 30-35 urtekoak izaten baitira, lehen berriz, 25-30ekoak.

Txaroren ustetan, aurten ume gehiago jaioko da herrian, klaseetara emakume gehiago joaten ari dela nabaritu baitu. Dena den, klase hauek ez dute erditze perfektu bat ziurtatzen, klaseetara joan izan diren emakume askok izan baitituzte erditze zailak. Gauza asko ikasten da, ordea, ama eta aitaren papera betetzea ez da eta batere erraza izaten lehenengo hilabeteetan zehar.

Eta aita... zer?

«Zorionez, gaur egun haurdunaldiaren lana emakumearen ardura dela pentsatzen duen oso gizon gutxi dago Arrasaten» dio Txaro Arregik. Arrasaten, gizakumeen %75a egoten da erditze salan emakumeari lagundu eta animatzeko, eta esperientziak jakinerazi duenez, emakumeak askoz ere lasaiago egoten dira gizona alboan eukiz gero. Txaro Arregiren ustetan, Arrasaten hain portzentaia altua egotearen arrazoia, ez da prestakuntza klaseetan ematen zaien informazioa, Arrasate mailan dagoen mentalitatea baizik: «Gizon bat prestatuntza klaseetara etortzen da, esperientzia polita izaten duenez, beste lagun bat animatzen du etor dadin, eta horrela, ahozko komunikazioaren bidez, ia ia emakume guztien gizonak etortzen dira prestatuntza klaseetara. Zoragarria da, eta batez ere, oso pozgarria.» Emakumeak haurdunaldiko prestakuntza klaseetara joaten diren bezala, gizonezkoek ere beren klase «partikularra» izaten dute. Haurdunaldiko 9. hilabetean, guztiz klase teoriko bat izaten dute eta bertan, erditze momentuan nola lagundu etabar erakusten zaie. Gizon guztiak ateratzen omen dira pozik klase hauetatik, izan ere, Arrasateko gizonek ondo baino hobeto dakite haurdunaldia polita bezain gogorra izateaz gain, bikoitearen ardura dela.



Zenbait emakume haurdun, arnasjeta ariketak egiten.

● Begoña Aranburu, emagin izandakoa

“Txaboletan eta argi barik ere atenditu izan ditut partuak”

Begoñak 80 urte beteko ditu laster. II. Gerrate Mundialeko miseria eta gosetearen erdian, ehundaka haurri lagundu zien mundura etortzen. Bizitza bat baino gehiago salbatu du eta oraindik ere, ama bat baino gehiagok gelditzen du kalean, egindakoagatik eskerrak emateko.

— Zein ikasketa egin zenuen emagin izateko?

— Lehenengo, hiru urte-tako batxilerra egin behar izaten zen, nik Oñatiko unibertsitatean egin nuen, baina gerra etorri eta denbora batean ezer egin gabe egon nintzen. Valladoliden bi urtetan “praktikante” karrera egin zitekeela jakin nuenean, animatu egin nintzen. Haraino joatea ezinezkoa zitzaidanez, nire kabuz egin nituen ikasketak. Valladoliden examinatu eta aprobatu egin nuen. Dena den, arazo bat gertatu zen: ezin zitekeen praktikan-te lanetan ibili «Auxilio Social» tituloa atera arte. Tira, hura ateratzen nuen bitartean, emagin tituloa ateratzen ere saiatu nintzen eta azkenean, biak atera nituen. 32 urte nituen orduan. Lortutako tituloak asko lagundu zidaten nire

lanean.

— Garai hartan, zein kondiziotan izaten ziren partuak?

— Orduan dena egiten zen etxean eta gainera, oso emakume gutxi joaten zen medikuarengana haurdunaldia zaintzera. Gosea eta miseria ziren nagusi, jendea txaboletan eta ganbaretan bizi izaten zen eta higiena mantentzea ezinezkoa zen. Baina umeak jaio egiten ziren eta lagundu egin behar, bai horixe! Oso gogorra izaten zen; behin argia joan zitzaigun eta kandelen argipean jaio zen umea. Arkakusoz betetako ijito-karro batean ere izan ditut partuak...

— Ume eta emakume asko hiltzen zen haurdunaldietan. Ezagutu duzu horrelakorik?

— Emakume bat ere ez “zait” hil baina, bai umeak, bai horixe! Emakume askok umea hilik izaten zuten sabelean, jakin gabe eta umea ateratzeko orduan, oso desatsegina izaten zen; monstruosidadeak ere atera izan ditut, beldurrezkoak!

— Zein izaten zen partuaren prozesua?

— Sukaldeko mahai gainean jartzen genuen emaku-



mea. Eskuekin ikutzen nion sabela umea zein posiziotan zetorren jakiteko eta masaje batzuen bidez, umea posizio normalean jartzeko. Tronpetata itxurako aparatu batekin, kanpotik igertzen nituen umearen bihotz taupadak. Partua hasten denean, umeak burua altxatzen du berez zuloatik atera ahal izateko, orduan nire lana umeari aurrea hartzea izaten zen, emakumea urratu ez zedin. Umea jaio bezain laster, zilbor hestea erditik moztu eta umea toaila batean usten nuen. Amarengana bueltatu eta plazenta kanporatzen laguntzen nion. Gero ur beroa botatzen zitzaion emakumeari goitik bera eta dena garbitzen zen. Berriz haurra hartu eta zilbor hestea lotzen nion. Sukaldeko mahai gainean jarri eta palanganana betean garbitzen zen usain

oneko jaboiaz. Altzuan hartu, lehortu, hautsak bota, zilbor hestea gasa batean batu eta benda bat jartzen zitzaion. Gero umea jantzi behar izaten zen: Lehenengo tergallezko kamiseta bat jartzen zitzaion eta honen gainean «pike»zko kamiseta sendoa-go bat. Izara bateaz, besapetik bera heltzen zitzaion. Gaietik muletoi edo felpazko manta bat jarri, eta azkenik dena ondo lotu. Umea tinko geratzen zen. Noski, orduan ez zegoen dodotis-ik!

— Orokorrean, zelako oroitzapenak dituzu?

— Oso gustora ibili nintzen nire lanean, afizio handia nuen baina disgusto handiak ere izan nituen. Bestalde, oso gogorra zen nire lana, 24 orduetan egon behar nuen gertu Santa Ageda, Garagar-tza, edo edozein lekutara joateko...baina ez dago munduan ume sano bat jaiotzen ikustea baino gauza politagorik. Gaur egun, emakumeek ez dakite zer egiten ari diren abortoa apoiatzen dutenean.

● “Gaur egun, emakumeek ez dakite zer egiten ari diren abortoa apoiatzen dutenean.”



Bigarren regionaleko taldea aurtengo denboraldian sortu da.

Regionaleko talde berria desagertzeko gertu egon da

Mondragon klubeko oinarritzko futbol taldeen dirupremien arazoa konponbide batera iritsi da, baina ez gorabehera gutxirekin. Izan ere, irailean jokatzeko hasi zen 2. regionaleko talde berriaren kasuan, auto-finantziazteari egindako uko biribiletik, gastuak ordaintzea onartzera pasatu dira jokalarik gehienak.

Auziaren jatorrian Mondragonaren egoera defizitariora dago. Oinarritzko zazpi taldeek 3,5 milioi PTA inguruko gastua dute, eta aldiz ez dute sarrerarik sortzen. Horregatik, direktibak zenbait alternatiba aurkeztu zizkien taldeei gastuak mozteko: jokalariko kuotak hile-

ro, bidaiak beren kontura edo beste mota bateko sarre-rak, zozketak direla edo...

Gazttxoenen aldetik, gurasoen laguntzaz laster argitu ziren gauzak, baina 2. regionaleko taldeak, dirua jartzearen kontrako jarrera erabatekoa izan zen hasiera batean. Mikel Uribealgo talde sortuberri horren delegatua zenak idazki bat bidali du ARRASATE PRESSERA esanez taldeak ahobatez erabaki zuela bere garaian dirulaguntzak egitea. "16 pertsonak eman zuten botoa eta 16rok ezetza erantzuntzat", dio Uribealgotik.

Uribealgotik esanetan, ondoren "direktibak taldea desagitea erabakitzen du, eta

jokalarikak futbol talderik gabe geratu behar direla ikustean, jarrera aldatzen dute". 18-19 jokalariko plantilatik, azkenean gehienak moldatu dira direktibaren proposamenera, baina bi jokalarik eta Uribealgotik delegatuak ez dute erabaki hori onartu, eurenari eutsi diote, eta kluba utzi egin dute. Mondragonen direktibaren aldetik, Jose Luis Ezkurra lehendakariak azkenean konponbide bat lortu dela nabarmentzen du, dena den, eta talde guztien artean dauden 140 jokalarien artean, 135 inguruk erakutsitako prestutasuna eta laguntasuna azpimarratzen du.

LABURRAK

Eskuz eta saskiz, garaipenez garaipen

Ezin martxa hobean dabilta Arrasateko esku-baloi eta saskibaloi taldeak. Jokotutako partidu guztiak irabazi dituzte orain artean, eta biek beren ligetako lider dira: saskilarik 2. mailan, eta eskubaloikoak 2. territorialean.

Saskibaloiari dagokionez, Logroñoko Cantabriaren kantxa zailean 72-79 irabazi ondoren, beste konpromezu zail bat dauka kanpoan, Ordiziaren aurka. Goierritarrek ez dute partidurik galdu etxean aurten, eta oso joko momentu onean daude gainera. Bi taldeek ederto ezagutzen dute elkar, eta Arrasate aurten denboraldi hobearekin egiten ari den arren, kantxako faktoreak Ordiziaren alde joka dezake. Lesiorik gabe, baina kolpe batzuekin joango dira arrasatearrak, partidu gogorra izan baitzuten Errioxan: Iñarrari bekain gainean ebakia egin zion Cantabriako batek ukalondoko batez.

Eskubaloi taldeari dagokionez, Legazpiko La Salleri 18-20 irabazi zioten joan den egunean. Lehen zatian igualtsu ibili ondoren, bigarrenaren arrasatearrak nagusitu ziren, azkenean behar baino estutasun gutxiagorekin irabazi arren. Oraingoan, sei jokatu eta seirak irabazi.

PENALTIAK

● **Hasierako minutuetan bi gol kontra izan eta gero, alferrikakoa izan zen harrezkero Mondrak kontrolatu izana Zallako partidua. Denboraldi hasiera bikainaren ondoren, bi pauso atzera eman ditu Mondrak. Ea berriro hasierak martxa hartzen duten!**

● **Nesken rugby taldeak bere historiako bigarren partidu ofizialean, lehenbizikoan bezala, sekulako jipoi hartu zuen (63-0 galdu zuten Elorrion). Iaz lagunarteko partiduetan arituzen talde gazte hau, eta aurrean sartu dira liga ofizialean estrainakoz. Oraindik punturik lortu ez duten arren, animo esan nahi diegu lerro hauetik.**

Belokik pilotari gazteak animatu zituen

Ruben Beloki pilotari nafarrak solasaldi bat izan zuen joan den asteartean Iturripeko kiroldegian Arrasateko pilotazale gaztetxoekin. 18 urterekin pilota profesionala izar berrietakoa bihurtu da Beloki, eta alderdi praktikoak azaldu zizkien pilotari arrasatearrei, nola hasi behar diren umeak entrentatzen, nola konpaginatu behar den pilota eta eskola, nola zaindu behar diren eskuak eta lesioak, eta horrelako gauzak.

Iturripeko aldagela, hitzaldi bitxiaren tokia, gainezka egon zen. Arrasate Kirol Elkarteko pilota sailaren inguruan 70 bat mutil eta pare bat neska aritzen dira pelotan gaur egunean. Gi-



Burlatako mutila herriko pilotariekin elkarrizketan izan zen.

puzkoan afizio handienetako herria da Arrasate, baina instalazio aldetik ezin esan puntakoen artean dagoenik. Uherkapeko pilotalekuko proiektua aspalditik geldidago, ea gaur egun erabiltzen diren Iturripekoa ez da batere aproposa negurako:

hotzaz aparte, pilotak segituan bustitzen dira euri apur bat egin ezker.

Burlatako pilotariak komentatu zuenez, igertzen du gaur egun gazteen artean afizioa gora doala, bera eta Eugi bezalako gazteen adibideak animatuta.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Zalla 2 - Mondra 1
Emakumezkoak: Lagun Onak 0 - Mondra 6
2. regionala: Mondra 0 - Elgoibar 3
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 1 - Anaitasuna 1
Kadeteak, 2. maila: Idiazabal 5 - Arrasate 2
Haurrak: Arrasate 3 - Idiazabal 0
Hurrengoak:
3. maila: Santurtzi - Mondra. Igandea, 11.15.
Emakumezkoak: Mondra - Gure Txokoa. Atxabalpe, lar., 15.45.
2. regionala: Aloña Mendi - Mondra. Oñati, igan., Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Martutene. Atxabalpe, igan., 15.45.
Jub. 2. maila: Arrasate - Segura. Atxabalpe, igan., 12.00.
Kadeteak, 1. maila: Aitzgorri - Arrasate. Segura, lar., 16.30.
Kadeteak, 2. maila: Arrasate - Urola. Atxabalpe, igan., 10.00.
Haurrak: Bergara - Arrasate. Igandea, 10.00.

Saskibaloia

2. maila: Cantabria 72 - Arrasate 79
Hurrengoak:
2. maila: Ordizia - Arrasate. Ordizia, larunbata, 18.30.
Sub-23: Arrasate - Larramendi. Musakola, igan., 10.15.
Jub. mutilak: La Salle - Arrasate A. Musakola, igan., 12.00.
Jub. neska: Patterncam - Juven B. Musakola, igan., 12.00.
Kadeteak, neska: Loiola - Arrasate A. Donostia, lar., 16.00.
Irurok - Arrasate B. Oñati, larunbata, 11.00.
Kadeteak, mutilak: Loramendi Kirolak - Loiola A. Musakola, lar., 12.00.

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Arrasate 39 - Arratikoko Zekorrak 5

Jubenilak: Arrasate 15 - Zarautz 0
Neska: Elorrio 63 - Arrasate 0
Hurrengoak:
Euskal liga, 2. m.: Gautxori - Arrasate. Bilbo, igandea, 13.30.
Jubenilak: Arrasate - Ordizia. Garagartza, larunbata, 16.00.

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Legazpia 18 - Arrasate 20
2. eskualdekoa: Bidebieta 33 - Arrasate 23
Jubenilak: Ordizia 18 - Arrasate 15
Hurrengoak:
1. eskualdekoa: Arrasate - Karmelo. Iturripe, igan., 12.00.
2. eskualdekoa: Arrasate - Ereintza. Iturripe, igan., 10.15.
Jubenilak: Arrasate - Bergara. Iturripe, lar., 16.30.

Ongi aukeratu ahal izan dezazun

Gizonezkoentzako erropa

Egizabal

Gizonezko eta emakumeentzako oinetakoak

Bidekurutzeta, 13 Tfnoa: 76 12 28 BERGARA



Nooperatibismoaren sorrera, Arizmendiarieta eta Eskola Politeknikoa batera datozen izen eta erreferentziak dira. Eskola sortu zenetik 50 urte betetzen diren honetan, hasiera haietako erretratua dakargu oraingoan. Garai hartan "Escuela de Aprendices" deitzen zen. Eskola horretan ikasten ibilitako talde honek, Peritajea ikasi zuen gero Zaragozan. 1947an egin zuten sarrerako esamina Zaragozako Perito Eskolan, Arizmendiarietak egindako negoziaketa batzuren ondoren Arrasatetik ikasteko aukera lortu eta gero. Kide guztiak Zerrajeran zebiltzan lanean, eta lanorduetatik kanpo esko-

lara joaten ziren, bai sarrerako esamina preparatzera eta baita gero kurtsoan zehar ere. Bost urteko ikasketak ziren, 2 preparatorio esaten zitzaiona, eta beste hiru karrerakoak. Eskolak ematen ibili zirenak, **Prudencio Osinaga, Javier Martinez** (orduak eskolako zuzendaria), **Antonio Basabe** eta **Mesanza** ziren, besteak beste.

Argazkian zutik ezkerretik eskumara, **Jesus Larrañaga, Jose Antonio Atxa, Jabier Aranzabal, Jose Mari Ormaetxea, Angel Agirre** eta **Felix Gonzalez**.

Jarrita ezkerretik hasita, **Jabier Ortubai, Luis Usatorre, Julio Gorroñogoi-**

tia, Ramon Escudero, Felipe Elustondo eta **Alfonso Gorroñogoi**.

Talde honetatik 11k bukatu zituzten ikasketak, eta hiru espezialitate ezberdinetakoak daude gainera: mekaniko, elektrizista eta kimikoak. Esaminak egitera urtean behin joaten ziren Zaragozara, hango delegatu batek bidalitako apunteekin ikasi eta gero. Itxura denez, oso tratu ona jaso zuten eskola hartan, ikasle onak ere baziren eta.

Promozio horretatik irten dira gero, Kooperatibetako fundatzaile batzuk, aurrera ere On Jose Maria Arrizmendiarietaren laguntza eta bultzadarekin.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

RKUZ

Sukaldeak

FAGOR 

Sukalde integratuak

Banatzaile Ofiziala

Mitarte, 3
Tfno-Fax: 77 04 55
ARETXABALETA



ALTZARIAK

ELEKTROGAILUAK

ETXEKO ALTZARIAK
DISEINUA - APAINKETA

TV - BIDEOA - SOINUA
expert  Banatzaile ofiziala

Araba Etorbidea, 20
Tfno - Fax: 79 23 51

Aretxabaleta

Asuncion, 1
Tfnoa: 79 10 97

MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ

Tfnoa:(945) 23 04 48



Goizalde

D A S T A P E N A

Gosari Berezia.



- Kafea
- Esnea
- Croissant edo torrada
- Marmelada eta gurina
- Laranja zumoa



Urtebetetze ospakizunak

Pintxo apartekoak



Etor zaitez Zain gaituzu!

José Letona Enparantza



Sexu heziketa egokitu baten premia

Orain dela gutxi arte sexualitateaz hitzik ere ez esatea normala zen. Gure gizarte honetan sexualitatea birsorkuntzarako edo ugaldenerako besterik ez zen onartzen; helburu honetatik at ematen ziren harreman guztiak pekatu zirela esaten zen.

Gaur egun kultura eta gizarte aldazten ari dira eta nonahi entzun edo ikusten da sexuari buruzko zerbaite. Komunikabideek eta batez ere telebistak milaka erreferentzia sexual eskaintzen dituzte eta honetarik oso gutxi bidaltzen dituzte mezu positibo eta zentzudunak, esate baterako, publizitateak eta abarrek gorputzak merkantzia gisa erabiltzera bultzatzen gaituzte. Dena den, ez da errezaz sexu jokabide bat ohizkoa edo normala den ala ez erabakitzea. Gizarte batetan nor-



maltzat hartzen dena, baliteke beste batetan anormaltzat jotzea. Egun gizakiarentzat

sexualitatea birsorkuntzatik at plazerra dakarkion harreman bat da eta sexu-harremanak

sarriago izaten dira, batez ere gazteen artean.

EUGENIO ITURRIOZ

'SALSA' IKASTAROA

ABENDUAREN 9TIK 20RA (20 EGUN)


EGUNERO 1,15 ORDU

MUSAKOLAKO SALOIAN


MATRIKULA: 3.500 PTA

IKASLE ETA LAGABETUENTZAT, 2.000

**Patterson maisu
kubatarraren
eskutik**



Informazioa eta Izenematea: GAZTEENTZAKO INFOMAZIO BULEGOA



ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **Bilbon, bi pertsona behar dira** pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 475 71 72. Oso merke.
- **Familia batek bi ohedun logela** eskaintzen du ikasle edo langileentzat. Konfortablea. Pentsio osoa, erdi pentsioa edo lo egiteko. Interesatuak Jose Luis Iñarra Pasealekua, 25, bajutik pasa.
- **Isaban apartamentua alokatzen da.** Sukaldegongela, komuna, 2 logela. Interesatuak (948) 11 14 58 tfnora deitu (8etatik 10etara). Juanan.
- **Deustun pisu bat betetzeko** pertsona bat falta da. Tfnoa: 79 14 71.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** 80 m². 3 logela, 2 bainu, saloia, sukaldea, berogailua, igogailua, eta ganbara ditu. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 61 95.
- **Ingenieritzako hiru ikasle pisu bila** Arrasaten. Mesedez, azkar-azkar deitu. Tfnoa: 79 41 69.
- **Pisua saltzen da Gasteizen.** Erdialdean. 130 m². Berriztea behar du. Tfnoa: (945) 13 07 27.
- **Gela bat bi ohekin** alokatze da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Apartamentua salgai** Arrasateko erdialdeko Oolarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitua eta kalefakzioas. reziro egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaeuz deitu. Luis.
- **Donostiako Gros auzoan** neska bat behar dugu pisua osatzeko. Tfnoa: 29 32 90.
- **Aretxabaletan bi logela** alokagai, sukalderako eskubideaz. Tfnoa: 79 04 62.

Lana

- **Emakumea esperientziadunak** ume zaindu edo etxeko lanak egingo litzuzke. Arantxa. Tfnoa: 79 13 66. Edozein ordutan.
- **Kanguro lana egingo nuke** ostiral eta larunbat gauetan. Tfnoa: 79 65 70. Ainhize.
- **Neska bat O.H.O.ko klaseak emateko prest dago.** Eta euskarazko klaseak ere ematen dira. Deitu 79 25 09 tfnora. Galdetu Anaz.
- **Unibertsitateko ikasle esperientziaduna** O.H.O.ko klaseak emateko prest. Tfnoa: 77 05 90. Aitziber.
- **Emakume esperientziaduna** pertsona nagusiak, umeak, gaixoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko** neska bat prest. Deitu 77 06 48 tfnora. Dorleta.
- **Ingeniaritzako 3. mailako** ikasle batek, dibujo klaseak emango litzuzke (B.B.B. eta U.B.I.). Tfnoa: 79 98 70.
- **Emakumea prest umeak zaindu**, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Biokimikako klaseak hartuko nituzke.** Urgentea. Deitu (94) 464 07 49 tfnora astegunetan eta 79 08 21ra astebukaeretan. Gaeuz. Naia-ra.
- **Goizetan ingelesezko klaseak** hartuko nituzke. Bilboko 3. maila egiten ari naiz. Tfnoa: 79 28 49.
- **Enpresa-zientziak egindako** neska klase partikularrak ematen ditu. O.H.O., B.B.B., U.B.I. edo enpresa-zientzietako ikasleei (mate, kontabilitatea,...). Tfnoa: 79 16 19.

Salerosketak

- **Karrerako bizikleta. RAZESA 57** tamainakoa. Campagnolo Velore kambioak, frenoetako eskutokietan palankadunak. Shinano pedaleak, Kanpagnolo-Athena frenoekin. Rolls sillinarenkin. Tfnoa: 79 90 03.
- **Egurrezko berogailua salgai.** ROCA markaduna. Deitu 79 07 25 tfnora.
- **Volkswagen Polo Classic** salgai. 58.000 Km. Deitu 79 86 69 tfnora.
- **Salgai Gameboy** bi jokurekin (9.000 PTA.) eta Nintendo bat bi jokurekin. (10.000 PTA.). Deitu 71 49 10 tfnora. Igor.
- **Fagor 100 litroko termoa** salgai. Prezio ona. Tfnoa: 71 07 73.

Denetarik

- **Beroki bat galdu nuen asteazkenean.** Meca parean kotxeak garbitzeko dagoen tokian. Tfnoa: 79 90 57. Olatz.
- **Samoiedo txakurrak salgai.** Pedigridunak. Ar eta emea. Prezio interesgarria. Tfnoa: (945) 27 78 44.
- **Astean zehar,** gaueko 9ak inguru, Gasteiztik Eskoriatzarako bidea autoz egiten baduzu, deitu ALECOPera. Tfnoa: 79 50 11. Esther Perurena.
- **Betaurrekoak galdu nituen** joan den asteartean Arrasaten. Burdinezko markodunak. Deitu 79 89 48 tfnora 9etatik aurrera. Ainhora.

Aste Gazte

Ikastaroak:

• “Salsa” ikastaroa Arrasaten, abenduaren 9tik 20ra. Arnaldo Patterson maisuaren eskutik. Musakolan. Matrikula: 3.500 PTA / 2.000 PTA. Izen emateak Gazteentzako Informazio Bulegoan.

Bekak:

• 94-95 ikasturtean Alemaniako Unibertsitateetan ikasketak eta ikerketa lanak burutzeko bekak. Lizentziatu nahiz karrerako azken mailako ikasleak eta alema-

nera ikasten ari direnak. Edozein arlotan, musika ezik. Epea: azaroak 24.

• 94-95 ikasturtean Italian ikasteko bekak. Baldintzak: 35 urtetik beherako lizentziatu edo karrerako azken mailako ikasleak, italiara menperatzea. Epea: abenduak 27.

Bus-bonoak:

• Arrasateko Gasteizera egunero autobusez zoazten ikasleok abono berezi bat eskuratzeko aukera duzue. Abonua hiruhilabetekoa da

eta 27.500 PTAko kostua du.

Lehiaketak:

• Gazteentzako I “Roberto Albandez” olerki saria. Arrigorriagako udalak antolatuta. Euskaraz nahiz gazteleraz. 2 kategoria: a) 7-13 urte, b) 14-17 urte. Gai librea. 10-50 lerro bitarteko lanak. Epea: azroak 21.

• Bilboko Hiria I. komiki lehiaketa. 16 urtetik gorakoei zuzendua. Gai librea. Euskaraz nahiz gazteleraz. 2 mota: zuri-beltz eta koloretan. Sari garrantzitsuak. Epea: azaroak 26.

“Gaztediari eta jendeari interesatzen zaion gai zentrala bizitzan sexua denez, (gai) hori aukeratu dugu.”

Asisko Urmeneta
(NAPARTHEIDAKO MARRAZKILARIA)




Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Jose Luis Agirretxe

San Frantzizkoko frailea

- Gero eta bokazio gutxiago dago. Zer deritzozu? Behintzat ez da lehen bezela izango, egiten direnek inork baino bokazio gehiago izango dute.
- Zein ordutan jeikitzen zara? 7.45etan.
- Insumisioaren alde? Ez dut iritzirik.
- Noiz sartu zinen apaiz? 26 urte nituela.
- Otoitz asko egiten duzu? Goizez ordu bat eta arratsaldean eta gauaz ordu laurden bat.
- Nola ikusten duzu Arrasateko gaztedia? Uf! Denetarik dago.
- Zein musika atsegin duzu? Klasikoa, Beethoven, adibidez.
- Zein txanpu erabiltzen duzu? Ja, ja! Ez dut izena gogoratzen.
- Non dago sotana? Logelana gordeta.
- Zer iruditzen zaizu hilerri berria? Oso ondo dago.
- Eutanasiaren alde edo kontra? Alde.
- Zer moduzkoak dira Rufinoren bazkariak? Primerakoak!
- Oinetakoetan zein zenbaki duzu? 43a.



BERTSOAK

Ehiza

Garai honetan hegazti ugari hil da urterikan urte, gizonak tiro egiten bait du beraien kantuen truke gai honi buruz nere iritzia hemen azaldu nahi nuke, txoriek ere bizi izateko eskubidea bait dute.

Hegazti askoren bizimodua ai, zer bizimodu motza ehizaz pentsatzen hasterakoan maiz ilundu zait bihotza. Hainbat modutan isladatzen da eskupeten tiro hotsa: ehiztari askoren poztasuna ta txoritxoeren heriotza

MAIDER OSA

LORAMENDI KIROLAK



AZAROAN, SKI MATERIALEAN OFERTA

ETOR ZAITEZ GURE AUKERA GUZTIA IKUSTERA



- **SKIRAKO:** ANORAKAK, BOTAK, PRAKAK, ESKULARRUAK, TXANOAK, BETAURREKOAK...
- **MENDIRAKO:** BOTAK, GORE-TEX, FORRO POLARRAK, POLAINAK...

EZ AHAZTU ZURE ESKIAK KONPONTZEA.
GURE KONPONKETA-TAILERREAN EGIN DEZAKEZU

Ion Pousa

Arrasatear baten pinturak Gasteizen arrakastatsu

Duela urte eta erdi hasi zen Ion Pousa pintzelari eragiten. Monterronen Txifik eman zuen ikastaroan izena eman eta ordutik, sekulako zaletasuna sortu zitzaion pinturaren inguruan. Urriaren 29tik azaroaren 8ra bitartean, pintura erakusketa burutu du Gasteizko Dato kalean. Nahiz eta berak onartu nahi ez duen, sekulakoa izan da lortu duen arrakasta.

— Ion, zein da zure estiloa?

— Ez dut estilo konkreturik, baina adibidez, espresionismo alemanak eta inpresionismo frantsesak asko inspiratzen naute; baina badaude beste margolari batzuk mugimendu hollen barruan sartuta ez daudenak eta gustoko ditudanak.

— Eta zein margolari dituzu gustokoen?

— Beno, egia esan asko dira, baina adibidez, Vlaminck, Derain, Matisse eta Van Gogh beste batzuen artean.

— Badirudi pinturan nahiko jakituna zarela.

— Ez dut uste, baina



oso zaletua naiz. Dena den ezin diot nahi beste denbora dedikatu afizio honi. Etxean txoko berezi bat daukat eta egunero ordu t'erdia gutxi gora behera ematen dut margotzen.

— Nolatan zure lehenengo erakusketa Gasteizen eta ez zure herrian, Arrasaten?

— Beno, Caja Laboralean egiten dut lan eta honek lokal bat eskuratu zidan Gasteizen. Noski, ezin nuen aukera hori alde batera utzi eta aurrera egin nuen. Lokala Dato kaleko solairu bat zen eta bertatik milaka pertsona pasatzen direnez, egunero erakusketa sekulako eszenografia batean bihurtu nuen, jendea hurbil zedin. Eta egia esan, nahi nuena lortu

dudala uste dut.

— Beraz, arrakasta handia lortu duzu, ezta?

— Beno bai, jende asko etorri da erakusketa ikustera. Egia esan, edo jendeak behintzat hori esan dit, erakusketaren muntaia izugarria zen. Pareta guztiak oihal beltzez estali genituen eta musika kontzertuetan fokoak isegitzeko erabiltzen diren grua horietako bat utzi zidaten, beraz, lokal guztia ilunpetan zegoen margoak izan ezik. Oso giro sofistikatua zen, oso polita.

— Zer margotzen duzu?

— Gehien bat paisaiak margotzen ditut, baina nik asmatutako paisaiak izaten dira. Gainera, nire pinturak errealitatearekin ahalik eta berdintasun gutxien izan dezaten ahalegintzen naiz, hau da, zerua berde margotzen dut eta zuhaitza, gorri adibidez.

— Saltzen dituzu zure margoak?

— Bai, erakusketa eta gero, saldu ditut batzuk baina hori ez da gehien kezkatzen nauena. Benetan nahi dudana margolaritzaren munduan sakonago sartzea da.

LABURRAK

Amodiozko Gutunen Lehiaketa martxan

Ziur behin baino gehiagotan amodiozko gutun bat idatzi duzula. Agian inoiz inora heldu ezin izan den gutun horrek, zuk pentsatutakoa baino goxotasun gehiago dauka. Horrela izan daitekeela uste baduzu, Berrigarak aukera polit bat luzatzen dizu. Joan den urtean zen lehenengo aldiz lehiaketa bitxi hau, guztira 245 gutun jaso ziren, horregatik, aurten ere lehiaketa bera martxan dago. Bihoztaren ateak zabaldu edo eta hainbeste maite duzun pertsona horrengan pentsatuz burura etortzen zaizun guzti hori idatzi eta dagoeneko lan erdia egin izango duzu. Dena den, urtarrilaren 17a baino lehen inspiratu beharko duzu, egun horretan bukatzen baita lanak aurkezteko epea. Asko jota, 2 orrialdeko gutunak izan beharko dira eta euskara hutsean idatzitakoak, noski. Dina-4ko formatoan aurkeztuak eta gutun formadunak behar dute izan. Irabazleen berri, San Valentín egunean emango da, hots, otsailaren 14an. Sariak honako hauek izango dira: Irabazleak 75.000 PTA etxeratuko ditu, bigarrenak 40.000, eta sari berezi moduan, Bergarako gutun onena idazten duenak, 25.000 PTA irabaziko ditu. Ea Kupidok laguntzen dizuen!

Lore Iurrindegia


Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

BLUSAS
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie



Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

Jose Letona Beka 1993

Joan den urtean ez zen Jose Letona beka eskuratzeko aukerarik izan, baina aurten dagoeneko bekaren eskabidea egiteko epea zabalik dago. Aurtengo bekaren helburua "Arrasate XVI. Mendean" ikerketa-lana burutzea izango da. Eskegileek, norbanakoka edo taldeka egin ahal izango dute eskabidea, bigarren kasuan, proiektuaren zuzendariduradun bat izendatuz. Beka hau jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da lizentziatua edo maila bereko tituloduna izatea, eta bekaren eskakizuna taldeka egin ezker, erdiak behintzat bete beharko du baldintza hori. Arrasateko alkateari zuzendutako eskabide-orriarekin batera, espediente akademiko zehaztua, Curriculum Vitaea eta lana nola burutuko luketen memoria ahalik eta zehatzen aurkeztu beharko dute eskegileek. Dokumentazioa aurkezteko epea azaroaren 26an amaituko da eta bekaren diru-kopurua 750.000 PTAKoa izango da. Dena den, informazio gehiagotarako udaletxeko Kultura Sailera deitu beharko dute interesatuek.



Artisau langintzen feria Gatzagan

Datorren asteburuan, hilak 13 eta 14an, Gatzagako Artisau Kolektiboak antolatuta, Deba Garaiko artisau langintza guztien feria ospatuko da Gatzagan. Egun horretan San Millixanak ospatzen direla eta, ekintza berri honi ekitea erabaki du abuztuan sortu berri den artisau talde batek. Fernando Sanchezek, Atxu Mendizabalek, Marieli Oterok eta David Fernandezek osatzen dute Gatzagako artisau Kolektiboa eta oraingoz, "Urgarri Keramikak" eta "Eskuz Larru" izeneko keramika eta larrugintza tailerrak dabilta lanean, kolektibo honetan. Ferixa hau ospatzeko ideia David Fernandezi bururatu zitzaion, baita kolektiboa sortzearena ere. Bera Madrildarra da, baina motibo pertsonalengatik, Gatzagara etorri zen bizi izatera. Betidanik gustoko izan du artisau-

tza, hori dela eta, informatika ikasketak alde batera uztea erabaki zuen. Kolektiboa sortu bezain laster, Deba Bailaran artisautzatik soilik bizi den jende guztia feria batean elkartzea erabaki zuten, eta Gatzagako Udaletxearen laguntzaz, beren asmoak behingoz gauzatuko dituzte. Asko kosta zaie artisau hauekin ematea, Eibarko Artisau Zentzuan agertzen ziren artisauak, afizio bezala zutelako artisautza eta ez ofizio bezala. Benetako artisau batekin kontaktatu ondoren lortu zuten beste guztiarekin bat egitea, eta horrela, 9 artisau bilduko dira. Erakustazoka bat izango da, hau da, artisauak lanean ikusteko aukera izateaz gain, bere lanak salgai izango dituzte. Beiragintza, egurrezko taila, keramika, ehungintza, bitxigintza, larrugintza, aintzinako

musika tresnak eta aintzinako armak izango dira ikusgai eta salgai. Honekin batera, taloa eta gatzaina erreak jateko aukera ere egongo da, guztia trikitilarekin alaituta. Kolektibo honek helburu bat lortu nahi du ferixa honekin: jendeak artisaua langile arrunt moduan ikusi dezala eta ez aparteko gauza bat edo gauza kultural bat bezala.

Kolektiboko lau partaideak, artisautzak ematen dietetik bizi dira. Ez omen da gehiegi irabazten baina beren gustoko den zerbaitetan lan egiteak garrantzi gehiagoa du eurentzat.

Oso prebisio onak egin dituzte larunbat honetako ferixarako, gainera eguraldiak laguntzen ez badu, Gatzagako frontoi berriak ondo baino hobeto babestuko ditu artisauak eta ikusleak.

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78



PEUGEOT-TALBOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA


Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

• AIPUA •

"Ejerzitoak hobeto ulertzen du aintzaren ideia, askatasunarena baino"

SEGUR.

• JEROGLIFIKOA •



Non busti da?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6
7		8		9	
10					
11			12		
13			14		
		15			
16					17

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Jose Antonio, atleta arrasatearra. 4. Omen. 7. Ikaraldia. 10. Formaldu. 11. Programazio lengoaia. 12. (Ald.) Italiako hiri eta portua. 13. Esna aurretik. 14. (Ald.) John, musikagile mundiala. 15. Kola. 16. Gorulari. 17. India.

Bertikalak 1. Belaunaldi. 2. Garratz. 3. Dominikar errepublikako ibaia. 4. (Ald.) Emankor. 5. Lehorte. 6. Arabako udala baten. 8. Kanpo. 9. Gizalan. 14. (Ald.) Lehen. 15. Lugoko ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Hainbeste neska maitatu beharrean maita ezazu bat eta ganorazkoa.

Taurus Zuk beti bezala jarraituko duzu: diru beharrean.

Gemini Zugandik zerbait hobea espero nuen arren, ilusioak hutsak gertatu dira.

Cancer Ametsetan zaudenean altu hitz egiten duzu ondokoek dena entzuten dizutela konturatu gabe.

Leo Txamarra berriarekin oso dotore zaudete.

Virgo Beti etxean sartuta zaude, ez dakit ez ote zaren atsotzen ari.

Libra Amak jakingo du azken egunetan ez zarela klasetik agertu eta hori da bronka dator-kizuna!

Scorpio Ez ezazu gaur egin ahal duzuna bihar egiteko utzi, gaizki ibiliko zara eta.

Sagitarious Ematen dizuten dena hartu, ez zaizu gaizki etorriko eta.

Capricorn Dituzun zor denak ordaintzeari ekin beharko diozu, ez baitira gutxi.

Aquarius Argaltzeko dieta bat prestatu eta ekin argaltzeari!

Piscis Lotsati samarra zara zuk egitea proposatu dituzun gauza denak egiteko.



UEUren IV. Arrasateko Ihardunaldiak
Monterron Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan
AEDren X. Urteurrenaren barruan

Azaroak, 16, asteartea

Mahaingurua: **Euskalkiak eta euskara batua**
Euskara batua dagoeneko 25 urte bete ditu,
eta bestalde, euskalkiek hor diraute. Bion arteko harremanak eta osagarritasuna.

ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA



• KATALIÑ ERDOCIAREN GOMENDIOA •



Eguna ondo hasteko modua gomendatu nahi digu Kataliñek: ondo arrosatzea. "Behar den moduko arrosua egin ezke-ro, goiza beste modutan pasatzen da". Astegun buruzurrian ez da aparteko astirik izaten, baina asteburutan batez ere, "jogurra, zuma, urdaiazpikoa, ogi tostata mantekila eta mermeladaz, eta kafesnea eta gailetak". Eta noski, astirik izanez gero, "egunkaria ere inportantea da, baina hori jaieguntarako lujoa da: gosaldiaz egunkariko gurutzegramak egitea".

• PROGRAMAZIOA •



- 14 Igandea**
20.00etan
Astebete (errepikapena).
21.00etan
Mondragol. Itxaro Zubillagarekin.
- 15 Astelehena**
13.35etan
Mondragolen (errepikapena).
14.05etan
"Ehun Metro"
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Gaueko pelikula: "Polizi akademia eroa"
- 16 Asteartea**
13.35etan
Mondrasport (errepikapena).
14.05etan
"Polizi akademia eroa"
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan lehiaketa.
22.00etan
Gaueko pelikula: "Nolakoa da itsasoa? Zer da energia nuklearra?"
- 17 Asteazkena**
13.35etan
ATBketan (errepikapena).
14.05etan
"Nolakoa da itsasoa? Zer da energia nuklearra"
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Gaueko pelikula: Pelikula Erraldoia. "Goonitarrak"
- 18 Osteguna**
13.35eta
Tertulixan errepikapena.
14.05etan
"Goonitarrak"
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Martin Zabaleta.
22.00etan
Gaueko Zinea: Haurren eguna. "Asterix eta 12 probak"
- 19 Ostirala**
13.35
Bakarka errepikapena.
14.05etan
"Asterix eta 12 probak"
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
«Astebete».
22.00etan
Gaueko Zinea: Euskal Filmearen eguna. "Kareletik"

• KOMIKIA •



Monte
taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

ARRASATE
HOTELA




Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

• SOLUZIOAK •

Errekan.
JERROGLIFIKOA
na. 8. Ar. Ialdi. 14. Len. 15. Lu.
Yuna. 4. Ekotze. 5. Idorte. 6. Gaube-
Bertikalak 1. Giza. 2. Azido. 3.
16. Inule. 17. In.
Bart. 13. Lo. 14. Ethon. 15. Leke. da.
Izaldia. 10. Zintzu. 11. Ada. 12.
Horizontalak 1. Gay. 4. Ei. 7.
GURUTZEGRAMA

Clio
Williams
150c.v.

**GORPUTZEZ CLIO
ARIMAZ WILLIAMS**



INFORMAZIOA



RENAULT

MECA, S.A.

ARRASATEKO RENAULT BANATZAILEA